

BERRIGARA

46. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara


1991, abenduak 20



**Olentzero
heldu zaigu**



**Euskara
Hitzarmena
sinatuko da**



**Agustin
Amasorrain
ORONAKo gerente**



**Kirol Sarien
irabazleak
baditugu**



CALIBRA
by Opel

**BENETAKO
INGENIERIA ALEMANA**



**TALLERES
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)
Erakusketa ARRASATEn:
Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA
ETA GOIERRI GARAIrako

Esperientiaz onenak

OPEL
Kontzesionario ofizialak



iturgintza

URA - GASA - BEROGAILUA -
SUKALDEAK eta BAINUEN
INSTALAKUNTZA

arrañaga

Matxiategi 16, Tfnoa: 76 29 97 - 76 04 22 BERGARA

**Laister denda berria zabalduko dugu.
IBARGARAI 16 ko etxebehean.**



*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu.
Urte berri on!!*

LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:

RAMON IRAEGUI



ORDEZKARIA
BERGARAN

Ramon M. Lili 6
Tfnoa: 76 23 30
Faxa: 76 41 54
20.570 BERGARA




VID-ART

Bidriera artistikoak

BIDRIERAK - MURALAK -
ISPILUAK-KRISTAL
BISELATUZKO
ATEAK - etab.

Azal eigu zu zure ideia
VID-ARTEk egingo dizu.



BELANBIDE, Z/G • 20.570 BERGARA • GIPUZKOA
Tfnoa: (943) 76 23 30 / 76 41 54

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 760397

Laguntzailea: Bergarako
Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezibar

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate, Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal, Iñaki
Arietaleaniz eta Eburne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose

Angel Mikeo, Estepan Plazaola
eta Juan Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa
Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarralde, Monika Belastegi,
Mikel Elkoroberezibar, Josune
Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber
Aretxaga, I. Sorondo eta Ainhoa
Bikufia

Argazki laborategia:

A. Gallastegi, B. Cantero, M.
Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren,
J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares,
Txomin Retolaza, Kifui eta Pol-
Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri
Taldea


Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
esanen eta eritzien erantzunki-
zunik.



14 Badirudi 92an ez dugula Txi-
bistorik izango. Estatu osoan
diren kontzertuetarako sala onene-
tariko bati agurra emateko ordua
heldu da.

- 4. Gutunak
- 5, 6, 7. Asteko Berriak
- 8, 9. Berriketan
- 10. Bergarako ermittak
- 24. Atrebentzia ezpada
- 25. Beraiek diñoa
- 26, 27. Ahopekoak
- 28. Bertako euskeran
- 29. Kirolak
- 30. Erretratu zaharra
- 31. Merka-merke



18 Ohizkoa denez, Bergarako
musika taldeen Gabonetako
kontzertuak amaiera ematen dio
aurtengo Azaro-Abendu musikalaren
edizioari.



Datozen egun hauetan ospa-
tuko ditugun fetxa berezie-
tarako Gabonetako gehiga-
rria prestatu dizuegu.




TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

Bazkariak
eta
afariak

Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C Tfnoa: 76 01 65

A.L. Mendizabali

Zer dela eta galdera hoiak? Batzokiak gaitz bat egin du, eta kito. Ez dit axola nondik datorren, egin dela baizik. Nire intentzioa ez da Batzokiarekin Batzoki delako sartzea, jokaera bat denuntziaztea baizik, datorren lekutik datorrela ere.

Beste taberna batzuk ere banatu dituztela? Egia esan., ez nekien, eta mila esker zure azalpenagatik, baina horrek ez du Batzokiaren jokaera justifikatzen.

Mesedez, ez gaitezen partidismoaren jokoan jausi. Mindu egin zaituela Batzokiak horrelako portaera izateak? Nik ere sentitzen dut. Hobe genuke horrelako gertaerak izango ez balira, baina errealitate bat da. Jokaera bat denuntziagarria denean, denuntziagarria da besterik gabe.

Ainhoa Lete

Eguberri on!

Zuek guztiongana jotzen dugu egun hauetan gure etxea apaintzeko, naturaren aurka egiten ditugun erasoak salatzeko eta ahal dugun neurrian informatu eta sentsibilizatzekotan.

Izeiak eta gorostiak bezalako espezieak (nahiz eta babestuak

egon) baita erratzak eta goroldioak ere, izugarrizko erasoak jasotzen dituzte.

Honen aurrean apainketa alternatibo bat aukera dezakegu. Hona hemen gomendio batzuk:

- Zenbait zuhaitzen bizkarroia den mihura aukera ona da, mendentan zehar erabilia.

- Plastikozko imitazioak: hauek gomendatzen dizkizuegu, nahiz eta denok jakin benetakoak ederragoak direla: birzikla daitezke urtez urte erabiliz. Jolas-dendetan eta bazarrretan lor daitezke.

- Adar lehorrak: erraz aurkitzen direnak gure mendietako edozein bazterretan, bakoitzaren gustora apain ditzakegularik.

- Makila lehorrak edo aroztegi-etako tablatxoak: hauek ere erraz aurki ditzakegunak. Bildu bezain laister bere apainketak ez dauka inolako lan nekezik.

Eguzki

OHARRA:

Joan den alean Kirol Sariak orrian agertzen zen argakia Daniel Santosena zen eta ez Benito Cantorrena. Barkamenak bioi inprentako akats honegatik.

Tiiira ba!



□ IMI

Bergarako IMIren bulegoak urtarrilaren 20tik 24ra bitartean emango den 20 orduko *Informatikarako sarrera* ikastaroa iragarri du. Matrikulak 7.000 pezeta balio du eta aurrez IMIk Ibargarai kalean duen bulegoan eman behar duzue izena.

□ Argazkilariak

Pol-Poleko Argazki Saileko hiru kide sarituak izan ziren larunbatean *Amurrioko Argazki Lehiaketan*; lehenengo saria Bergaran bizi den *Agustin Gurrutxaga* eibartarrak irabazi zuen, *Benito Canterok* hirugarren saria eskuratuz. *Juan Tabares* bergarra ere finalisten artean sailkatu zen. Sari banaketa Errege egunean izango da Amurrian.

Euskera hitzarmena larunbatean sinatuko da Udaletxean

Larunbatean, hilak 21, eguerdiko 12etan, euskararen erabilpena bultzatzeko hitzarmena sinatuko dute herriko 42 entitatek. Hitzarmeneko punturik garrantzitsuenak honako hauek dira: entitateen arteko harremanak euskaraz izango dira, entitateek euskaraz eramango dute beren barne administrazioa eta 1992-93 ikasturtean 11 urtez azpiko hurrei entitate sinatzaileek euskaraz eskeiniko dizkiete beren ikastaro, entrenamendu, entsaio, etab.ak.

42 talde

Konpromezu hori hartuko duten taldeak honako hauek dituzue: Udala, JARDUN, Euskaltegia, Aranzadi eta Mariaren Lagundia Ikastolak, Institutua, Lanbide Eskola, Angiozarko eta



Uberako Eskolak, UNED, Haurtxoa, Musika Eskola, Mendi Nekazaritza Elkartea, EHE, Bertsolaritza Eskola, Aritzeta, Orfeoia, Xamatx, M. Aspiazu Dantza Taldea, Txintxerriña, Aske, Kukuma, Taun-Taun, Filatelia eta Numismatika taldea, S. Arrieta Zeramik taldea, Ariznoa kluba, Angiolillo, Kobok

Dultzainero taldea, Eguzki, EKI, EGI, Gazte Asanblada, BOTA, Jarrai, Sta. Marinako Parrokia, B.K.E., Pol-Pol Mendizale taldea, Lokatza, Kultur Ekintza, Xake taldea eta Zaleak. Besteak beste, sinatze ekitaldian *Mari Karmen Garmendia* Hizkuntza Politikorako Idazkari nagusia izango da.

Hordago!

Argazkian dituzuen horiek aurtengo Elkarteen arteko Karta Txapelketa irabazi duten *Pertxako* kideak dituzue. Larunbatean *Pertxan* jokatuako finalean, *Pertxak* ez zuen inolako problemarik izan *Oilagorria Ehiza eta Arrantza Elkarteari* 3 eta 0eko emaitzarekin irabazteko; 8 erregetako musean *Jesus Kalbotxeaga* eta *Vidal Kareaga* izan ziren garaile, *Agustin Lizarralde* eta *Jose Ramon Lozanok* ere 10 erregetako puntua lortu zuten eta, *Martin Aparicio* eta *Dionisio Romerok* berriz, tuteko partida irabazi zuten.



Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

LONBIDE OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57


BERGARA

□ BOTA

Bergarako BOTA taldeak autobusa antolatu du larunbatean, hilak 21, Baionan insumisioaren alde egingo den manifestazioan parte hartzera joan nahi duten guztientzat. Autobusa eguerdik 12etan irtengo da Frontoitik eta izena emateko Gaztetxe, Pol-Pol edota Arrano tabernara jo dezakezue.

□ Saskibaloia

Udal Kirol Zerbitzuak eta B.K.E.ko saskibaloiz sailak saskibaloitxapelketa antolatu dute 16 urtetik gorakoentzat. Txapelketa urtarrilaren 2tik 5era bitartean jokatu da Kiroldegian. Izena emateak 1.500 pezeta balio du eta Udal Kirol Zerbitzuan egin dezakezue, jokalaribakoitzaren N.A.N.aren fotokopia aurkeztu ondoren.



Osakidetzaren asmoak

Osakidetzako arduradunek Anbulategiko bigarren pisuaren gaia berraztertuko dutela jakinerazi diote Bergarako Udalari. Era berean, Deba Garaiko ardura duen Arabako area sanitarioan egin beharreko inbertsioen berri izango du Udalak. Horrela, Osakidetzak kaso egin dio Bergarako Udalak egindako eskakizunari, bigarren pisu hori eraikitzeko egindako zenbait milioitako inbertsioa ezerezean geratu dela azken urteotan eta Osakidetzak ez duela agindutakoa bete

salatu baitzuen Udalak. Gogoratu, irail aldera, Bergara, Antzuola eta Elgetako alkateek ere beraien desadostasuna azaldu zutela Eibarren atenditzen ziren zenbait espezialidade Mendarora pasatzearekin, Mendarorako komunikabideak ezin txarragoak baitira alkate hauen iritziz. Hori dela eta, hainbat espezialidade Arrasatera pasa ziren eta 92ko urtarrietik aurrera ere dermatologia, urologia, radiodiagnostiko eta neurologia ere bertan bilduko dira.

□ Liburutegia

Kultur Etxeko 1.go pisuan dagoen liburutegia goizeko 8etatik arratsaldeko ordu batera egongo da zabalik Gabonetan. Era berean, bazkide karnetak berriztatzeko bi argazkirekin nahiko izango duzue. Haurrentzako liburu egokien zerrenda ere bertan lortu dezakezue.

□ Eguzki

Talde ekolojistak dei egiten du Gasteizen burutuko den Garoñaren aurkako manifestazioan parte hartzeko. Irteera arratsaldeko 6 t'erdietan izango da Frontoitik.

□ Musika Eskola

Musika Eskolako Tipleen Abesbatzak parte hartuko du igandean, hilak 22, eguerdik 12 t'erdietan, Azpeitiako Zelaitxo Zinemaren burutuko den Eguberri kantak kantari Jaialdian.

TOKI-EDER
Taberna

Pintxoak eta
eguneko bazkariak
Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

ederju

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA



Obrak gelditu

Bergarako Udalak ez dio baimenik eman *Naturgas* enpresari Zabalotegi auzoan *gasaren instalakuntza* egiteko, Udalen osorako gasifikazioaren plangintza aurkezten ez duen bitartean. Naturgasek Zabalotegiko distribuzioaren 5. sarearen anpliazioa egiteko eskakizuna atzera bota zuen abenduaren 9an eginiko azken Gobernu Batzordean. Udal teknikariak aurkeztutako txostenean proiektuaren ejekuzioaren komenigarritasuna jasotzen den arren, zinegotziek Natur-

gas enpresa urriaren 15ean Bergarako gasifikazioa aztertzeke egin zen bilerara ez zela azaldu adierazi zuten. Udalak jakinerazi duenez, bilera horretara agertu ez zirenez, herri osoaren gasifikazioa burutzeko iharduera plangintza eskatu zitzaion Naturgasi baina Naturgasek, subentzio faltagatik, plangintzarik aurkeztea ezinezkoa zitzaiola erantzun zuen. Gogoratu enpresa honek 88.etik diharduela gasa kanalizatzeko lanetan.



Urte berri on

Urte berri bat hasi dugula aste honetan, sendotasunaren urtea! 46 ale ez dira broma, eta asteroko lana neketsua da benetan; hala ere, ilusioak eta lanerako gogoak gainditu ditu makina bat buruhauste, traba eta ardura. Ahaleginak egin ditugu urte honetan JARDUN eta Berrigarako lagunok, eta hainbeste lagundu gaituen jendeari eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen.

Berrigarak etapa garrantzitsu bat burutu du, aurretikoan J.L. Bikuñak ederki zioen bezala, euskara hutsez Bergarako informazioa, kultura eta historia errebista honetako lerroetan bat eginez. Eta horrela izan dadila luza-roan.

Nik neure aldetik, kostata bada ere, agur esan beharra daukat; hemendik aurrera zuzendari lanak beste norbaitek eramango ditu. Ezinezkoa egiten zait niri, Bergara ingurutik kanpora joan bait naiz lanera.

47. alea zorioneko 92an jasoko duzu etxeko buzoian, eta bitartean primeran igaro Gabonak eta Urte Berri On!


Miguel Angel Elkoroberezibar

IZOZKIAK

IZARRHOTZ

IZOZKIAK

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22



GAZTELV S.A.

Burdindegia


Jai alaiak igaro ditzazuela!!

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

Agustin Amasorrain, 41 urteko bergararra. Donostian Inenieru ikasi eta 72an lizentziatu zen. Bost urte daramatza Donostian, ORONA enpresako gerente. 92an protagonismo berezia izango du igogailuak eraikitzeagatik ezaguna den enpresak, besteak beste, Bartzelonako Olinpiadetarako egin diren hainbat eraikuntzatan lan ugari burutu dituelako.



Agustin Amasorrain ORONAKo gerentea: "Palau San Jordi geuk egin dugu"

- Bost urte herritik kanpo, ze harreman daukazu Bergararekin?

- Familia bertan daukat eta sarri joaten naiz jaioterrira, zenbait lagunekin ere mantentzen ditut harremanak eta noizbehinka bazkariren bat edo beste egin izan ditugu.

- Gabonak senideekin igaroko dituzu...

- Emaztea Donostiarra daukat, beraz Bergaran eta Donostian pasako ditut Gabonak.

- Urtero amasorraindarrak egin ohi duzuen bezala aurten ere Turkarrixan bilduko zarete...

- Aita-osabak eta beren lagunek Turkarrixan bazkari haundia egiteko ohitura zuten, asto eta guzti han joaten ziren

urtero. Harrezkero, orain 30 urte direla, gure lehengusurik zaharrenak ohitura berreskuratu egin zuen eta, ondoren, gainontzekoak apuntatu ginen. Gaur egun lehengusuak, osaba-izebak, lagunak eta gaztetxo kuadrila haundi bat biltzen gara urtero, abenduaren 29an, Gabonak elkarrekin ospatzera. Txorizo errea eta txan-

paina gustora dastatzen ditugu.

- Sar gaitezen enpresa kontutuan. Esprikaiguzuk zuzentzen duzun enpresaren presentzia Bartzelonako Olinpiadetan.

- Bartzelonako San Jordi pabiloia guk egin genuen Dragados Y Construcciones enpresarekin batera. Gure sistema, jopardar batek eta beste aleman batek homologatu zuten. Ondoren, gure aurrekontua presentatu eta onartu egin zen. Horretan Pascual Margall, Bartzelonako alkateak, zerikusi haundia izan zuen, nahiago bait zuen bertako enpresa batek eraiki zezan. Egindako lanarekin oso gustora geratu dira eta ORONarentzat eskaparate ezin hobeia izan da gure mugetatik kanpo begira.

- Sevillako Expon ere lan ugari egin duzue oker ez bagaude.

- Horrela da. Sevillan 14 bat pabiloitan jarri ditugu gure estruktura eta igogailuak. Espainakoan, Arteetakoan eta ONUkoan, esaterako lan asko egin dugu dagoeneko.

- Eta horrek zer suposatzen du enpresa euskaldun batentzako?

- Guri, lan horiek primeran datozkigu, batez ere enpresa ezagutzera emateko. Aurrerantzean errazagoa egingo zaigu

ANTIA

HARATEGIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

anezka

Oihalak eta lenzeria

Zorionak eta urte berri on!!

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

Mugica

Gozotegia

Artekale 3, Tfnoa 76 51 65


gure produktuak saltzea, dudarik ez dago.

- Entzun dugunaren arabera, Fagorrek datorren urteko Olinpiadetan kirolarien etxeetako sukalde guztiak jarriko ditu. Euskal enpresen presentzia Bartzelonan nabaria da.

- Bai, nik dakidala, Fagorrek, Ursak, Ulmak eta guk geuk, lan asko egin ditugu. Horrek esan nahi du Euskadiko enpresak gai garela muge-tatik kanpo konpetitzeko eta horretan jarraitu behar dugula.

- Dena dela momentu larriak bizi ditu euskal industriak, siderurgiak batez ere. Ez zarete zuek oasis bat deserta zabalean?

- Ez dakit gu ondoegi gabiltzan baina argi dago beste batzuk ez dabiltzala gu baino hobeto, zorixarrez.



Agustin Amasorrain, Odon Elorza Donostiako alkatearekin batera.

- Nire ustez, gaur egun, bi krisi moeta dauzkagu bata bestearen gainean: alde batetik est-ruktura krisi bat eta beste koiuntura krisi bat. Azkenengo honek ez nau asko arduratzen, baina lehenengoa oso latza da. Uste dut badela garaia denok elkarrekin lanean jartzeko: enpresari, sindikatu, administrazio eta alderdiek adostasun batera iristeko errespon-sabilitatea dute beren gain.

- Bergarako enpresaren batekin harreman komertzialik badu O-RONAk?

- Bai alde batetik, Bergarako konstruktore guztiekin jardun izan dugu lanean eta oso harreman onak ditugu eurokin. Badakizue Bergaran delegazio bat daukagula inguru horretako salmentak egiteko. Bes-

talde tornillo eta tuerka piloa erosten ditugu Bergaran: Matz-Erreka, Torrunsa, Urzelai eta Amil-lagako Galbanotecniarekin harreman estuak ditugu. Bartzelonako Palau San Jordiko tornilo haundienak, esaterako, Bergarako enpresek egindakoak dira.

- Datorren urteaz asko hitzegin da, baina 93an irekiko dira Mugak. Horrek suposatzen duen erronkari begira prepa-ratuta zaudete?

- E.E.E.an sartzeko erabakia hartu ondoren, bakar batzuk dira ondo gertatu diren enpresak. Kanpoko asko sartu dira hemen, eta gu, berriz, ez gara kanpora irtetzeko gai izan. Direnak direla derrigorrezkoa zaigu irtetzea, Europa eta mundu osoko enpresekin harremanak eraikitzea, alor guztietan. Nahitaezkoa

zaigu bide hori jarraitzea. ORONAK, hiru enpresa ditu Frantzia, Italia eta Portugalen, baina gogorrago ekin behar diogu bide horretatik. Produktu eta zerbitzuen mailan oso ondo prestatuta gaude.

- Txoritxo batek esan digunez datorren urtean publizitate kanpaina zorrotzak jarriko dituzue martxan. Esponsorizazioa dela eta mundu osoan ezagutzera eman-gozuzuela zeuen burua. Zer diozu horri buruz?

- Bai, 92ko Tourra, jakina denez, Donostiatik irtengo da. Gure izena Euskal Herriarekin batera mundu zabalean ezagutzera emateko, gure ohiartzuna nabaria izateko, Tourreko esponsor ofiziala izango da ORONA. Bestalde, Askatuak Saskibaloitza Taldea patrozinatuko dugu.

- Amaitzeko, Bergarako herriari zerbait esanahi badiozu...

- Jai zoriontsuak opa dizkiet Bergararrei. Ia datorren urtean, aurten baino lorpen haundia-goak eskuratzen ditugun.

Palau San Jordiko tornilo haundienak Bergaran egindakoak dira

- Eta zein da krisi pe-tral honetatik irtetzeko jarraitu beharreko bide-a?

 **alga**
Usaindegia.
Eder-gela. Oparigaiak.
IBARGARAI 10 Tfnoa: 76 00 85

Kirol Moda SURF **AISOR**
Rip Curl , Town country, Quick Silver, O'Neill
Bidekurutzeta 7 Tfnoa: 76 04 10 BERGARA

San Adrian, Ondartzan zegoen

Ondartza inguruan zegoen San Adrian ermitari buruz jarduten du Imanol Sorondok aste honetan. Urteak dira Ondartzan ermitarik ez dagoela, baina ermita izandakoaren hegoaldeko sarreran ur bedeinkatuaren ontzia gordetzen da oraindik.

San Adrianen ermita Ondartzan zegoen eta gaur, bere izatea galdu ondoren, etxeko tresnak gordetze-ko erabiltzen da.

Aspaldiko ermita guztiak bezala, ekialdera begiratzen zuen, hau da, trikuarriak eguzkia sortzen den aldera dauden bezala, horrela kristau eleizak eta ermitak Jerusalemenera, Belenera, Eguzki berria den Jesukristoren lurraldera, ekialdera begiratzen dute. Osintxukoa eta San Antoniokoa ez daude ekialdera, baina konturatu behar dugu horietako lehengo zaharrak Deba ibaiak eraman zituela 1.834garren urteko uholdean, eta oraingoak geroztik jasoak izan direla eta, gainera, ez lehengo leku berdinean, hogeitamarretik laurogei bat metrotara baizik. Lehen, den-denak ekialdera begira.



1.598an boda bat ospatu zuen "San Adrian Jaunaren ermitan", eta urte horien inguruan Ondartzatar Pero Ibañezek 200 errial utzi zizkion bere testamentuan, eta bere etxeko ohe bat bertara, ostatu bila, joaten ziran behartsuentzako izan zedila agindu zuen.

Oraindik ermita izandakoaren hegoaldeko sarreran han dago ur bedeinkatuaren ontzia. 1.900garren urtean Ildefonso Elgarrestak San Adrianen irudi berri bat eman zion Santamañako eleizari eta bertan erakusten da Korupeko ertzean.

Imanol Sorondo

Goiko argazkian agertzen den Ondartza baserrian zegoen San Adrian ermita.

Gaur egun ur bedeinkatuaren ontzia bakarrik geratzen da (beheko argazkia).



PUC - VEKA -
LEIHOAK -
ATEAK

Elorregi Auzoa Tfnoa: 76 58 87 BERGARA



Gabonak bertan



Gabonetako oroitzapenak

Gero eta jende gehiago da, gazte jendea batez ere, Gabonetako oporrak bidaiaren bat egiteko, eskiatzera edo mendira joateko aprobetxatzen dituen; kasurik gehienetan Gabon gaua etxekoekin pasatu eta biharamonean han eta hemen ikusten ditugu motxila, poltsa eta bestelakoak hartu eta kanpora joateko gertu.

Gehienok, berriz, batzuk opor egunik ez dutelako edo diruz sobran ez dabiltzalako, besteok jaiak herrian pasatzea gogoko dugulako hemen ibiltzen gara, kalean gora, kalean behera, etxean, Gabonetako giro berezian murgilduta: kolorez jantzitako kaleak, eskaparate dotoreak, olio aza, bixigu, in-txaursaltsa, konpota eta abarrez osatutako jatordu bereziak, opariak, gabon kantak, urtean zehar beste inoiz ikusten ez ditugun bergararrak.

Asko aldatu dira Gabonak. Lehen zuten esanahia galdu egin da neurri haundi batean, baina badute oraindik kutsu liluragarri bat, txikitako oroitzapenak, ilusioz beteta bizi izaten genituen une haiek gogora dakarzkiguna.

Mirari Alberdi



BENITO CANTERO

LAZKANO

OINETAKOAK

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24



Saltsetan

Jakina da Gabonetan ondo jan eta afaltzeko dugun ohitura. Gabon gaua, Eguberri eguna, Errege eguna..., egunotan tripak ondo asetzeari ekiten diogu eta gabon ostean etortzen dira bai gehiegi jan eta edatearen ondorioak. Balantzaren sustuak heldu bitartean, Lasa Jatetxearen, Erresidentziako sukaldarien eta sukaldaritza ikasten diharduten Aitor Etxeberria eta Iñigo Larrañagaren proposamenak ekarri dizkizuegu.

Hasteko...

Erresidentziako sukaldariak



Arrain Zopa

Osagaiak:

- Olioa.
- Gátza.
- Barazkiak (porruak, azenarioak, tipulak eta berakatzak)
- Legatz buztanak
- Ganbak.
- Zapoa (zati bat) eta txirlak.

Nola prestatu:

- Olioa, barazkiak, legatz buztanak eta za-

poa lapiko baten jarri eta pixkat gorritu arte eduki. Bitsadera hartu eta arraina atera, ura erantsi, eta barazkiak egosita daudenean puregailuan pasatu.

- Azken orduan zopakoa eta arraina bota, azken hau hezurrik gabe.

- Txirlak eta ganbak beste kazola baten egosi eta ur hori ere zopa egiteko erabili.



IZADI

Santiveri

PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

iRUDI

Erlojudenda

Bitxitegia

San Pedro 11
Tfnoa: 76 51 65

**MEKOLALDE
TABERNA**

**Gure bezeroak zoriondu nahi ditugu Gabon
jai hauetan.**


Tfnoa: 76 50 18

BERGARA



Jarraian...

Aitor Etxeberria
eta Iñigo Larrañaga



Solomotxoa Idiazabal erara

Osagaiak:

- Tournedo 2, 300 gr.
- Idiazabal gazta lon-txa haunditan.
- Esnegaina litro laurdena.
- Okela zukua dl. bat.
- Perretxikuak 250 gr.
- Berakatza, perexila eta olio.
- Solomotxoa saltea-

Nola prestatu:

- tu, zatitu eta pixka baten gorde.
- Saltsa egiterakoan esnegaina eta gaztaren erdia nahastu, eta ur

pixkat erantsi ondo ur-tu dadin.

• Perretxikuak zabal jarri tarteran, ogi birrin-dua, berakatza eta perexila jarri gainean, ardo zuri eta olioaz busti eta labe beroan sartu gorritu arte.

• Labean egindako perretxikoak zabal ipini eta gainean solomotxoa zatituta. Guztia Idiazabalgo gaztaz estali.

• Atera aurretik labera sartu gainerretu dadin eta saltsa beroa bota gainetik. Okela-zuku pixkat bota eta perexil txikitua hautsezatu.

...amaitzeko

Koldo Lasa


Intxaursaltsa

Osagaiak:

- Litro bat esne.
- 250 gr. intxaur (os-kolik gabe).
- Ogi mamia (ogi baten laurdena)
- 150 gr. azukre.

Nola prestatu:

Hiru lehenengoak 10 minututan egosi eta gero azukrea gehitu. Birrintu eta epela jan.



ERROTA - GAIN

Aluminioak



- Aluminiozko leihoak (Isolamendu termikoa) eta PVC.
- Galdaragintza orokorrean

Labegaraieta - Hazkarruntz Auzoa Tfnoa; 76 32 40
BERGARA



ILEAPAINDEGI MISTOA
ESTILISTA.


Artekale29. Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA



Datorren urtean ez dugu Txibistorik izango

Txibisto laster ixteko dago. Ez da azken orduko notizia, izan ere aspalditik entzuna genuen San Juango dantzalekuak bereak eginak zituela. Uda aurretik argi utzi zuten diskotekako nagusiek, udazkenetik aurrera kontzertuetarako bakarrik irekiko zela. Horrela izan da. Nolanahi ere, sekula baino talde gehiago pasatu dira bertatik azken bi hilabete hauetan.

Joan den larunbatean, abenduak 14, entzun ziren azken aldiz kitarra hotsak San Juango diskotekan. Aurrerantzean, aingerutxo batek ebitatzen ez badu, kaldereria bihurtuko zaigu rock antzokia.



**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU

**ONENA
TINDATEGIA**

Barrenkale 29, BERGARA

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - SS

BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

KIZKUR

**Heapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



Eritziak-eritzi:

Musika kritikoez Txibistori buruz diñoe

Jose Joaquin Forcada
"Forki"
 (Donostlako Herri Irratia)

Txibisto Diskoteka ixteak ez nau batere harritu: aurrez iragarritako heriotza baten kronika baino ez da. Aspalditik ezagutzen nuen diskoteka honek egoera ekonomiko larria bizi zuela. Nahiz eta azken boladan ixtera ez zela iritsiko pentsatu, hilabeteotan aktibitate izugarria izan bait du.

Rock adituen artean oso iritzi zabaldua da, Txibisto erdi mailako kontzertuak egiteko diskotekarik egokiena zela. Leku gutxik izan dute horrelako soinua kalitate ona. Hau bezalako tokia desagertzea benetan penagarria! Ondoren esango dudanak ez du, seguruenik, ezertarako balioko baino Txibisto itxi ez zedin norbaitek zeredozer egin behar luke. Baina, jakina, rock musikak ez du inoiz mezenasik ez lagun haundirik izan.

Gogoratu dezagun Bergaran rock kontzertuen tradizio haundia aspaldikoa dela: frontoian hasi ziren eta Txibiston amaitu, eta ia beti pertsona berberak antolaturik. Hauentzat nire eskerrik beroenak. Ea norbaitek hartzen duen lekukoa.

Iñaki Zarata eta Jose Joaquin Forcada "Forki" musika kritikoez beren eritzia eman digute laster ixtear dagoen San Juango dantzalekuari buruz.

“
 —————
Bergaran rock kontzertuen tradizio haundia aspaldikoa da
 —————

“
 FORKI.

“
 —————
Euskadin kontzertutarako zegoen salarik onena zen Txibisto
 —————

“
 IÑAKI ZARATA.

Iñaki Zarata
 (DVko Devorame gehigarriko arduraduna)

Hau zoritxarra. Beti onenak jausten omen dira, eta Bergarako Txibisto Euskadin kontzerturako zegoen salarik onena zen. Honekin ez diot garrantzirik kendu nahi Txitarroko programazio zabalari eta sakanako txoko goxoari, Ilargiri, ez; baina Txibistok azpiegitura hobea zeukan, haundia izatean taldeentzat eta ikusleentzat erosoagoa. Kokapena ez zen oso egokia herri haundietatik aparte zegoelako, baina ingelesez «Venue» zela esango genuke, taberna eta klub txikiak eta kirol instalazio haundien artekoa, azken hauek ez dira musika entzuteko oso egokiak eta.

Gogoratu erazi nahi nuke (buruz eta inongo daturik gabe bada ere) nazioarteko talde oso onak egon direla bertan: Loyd Cole, Sugarcubes, Pixies, Sisters of Mercy eta Barricadaren arrakasta, edo Hertzainak taldeak zuzenean egindako grabaketa. Momentu hartan, behintzat, ez ziren Anoetan egin, beharbada egin ere ez ziren egingo.

**BRIKOLAIA
 AUTOMOZIOA**

**Turismoak,
 kamioiak, etab.**

Bolu, Tfnoa: 76 44 04 BERGARA

**M.
 OSINAGA**

**Etxeko
 erreformak**

**Sukaldeko
 altzariak**

Espaloia z/g
 Tfnoa: 76 29 85 / 76 00 57

MAKAILO

**Makailau ETXEA
 kazuelak
 gertatzen ditugu**

Ibargarai 15

LARREA

TABERNA

**Kale Barren 17
 ANTZUOLA**



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41



JARDUN Elkarteak

JARDUN
Elkartea



Pepelu

Illeapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak.
Eguneko menua daukagu.

Taberna

Zubiaurre 22, Tfnoa: 76 20 19 BERGARA



**Gabon
zoriontsuak
eta
urte
berri on
opa
dizkizue
bergarar
guztioi**



EXLUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62
BERGARA

Tximak

Ileapaindegia

Fraikozuri 3, Tfnoa: 76 56 69

Etxenagusia

Berezitasunak:

kremazko kafea eta
paella Valentziako erara

Bidekurutzeta 9, Tfnoa: 76 20 08



Gabonen atarian azken 12 urteetan egin ohi den bezala, aurten ere abenduaren 20an Gabonetako Kontzertua egingo da. Herriko musika talde adierazgarrienek, bat eginda, urte osoko kontzerturik aipagarriena eskeiniko digute: Orkestra Sinfonikoa, Udal Musika Banda, Orfeoia eta Aritzeta Abesbatza.



Gabonetako Kontzertua

Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoa

Alfredo Gonzalezen gidaritzapean, 1.985an ekin zen Musika Eskolako Orkestra Sinfoniko gaztea. 60 partaideko taldean, 27 mutilak dira eta 34, berriz, neskak. Adina, batzazbeste, 16 urtekoa da eta aurten 3 kontzertu eskeini dituzte Bergaran, eta 6 kanpoan. Presidentea, J.L. Berrondo da.

Aritzeta Abesbatza

1.979. urtean sortu zen Izaskun Labaienek zuzentzen duen abesbatza. 50 lagun dira, 20 gizonetako eta 30 emakumezko, eta adina, batzazbeste,

26 urtekoa da. 22 urtez beherakoak asko dira taldean. Felipe Uriarte dute Presidente eta urtean 15 emanaldi inguru burutzen dituzte.



Alfredo Gonzalezek zuzentzen duen Udal Musika Banda, lau taldeetatik lanean urte gehiago daramatzana.

Udal Musika Banda

J.M. Arrondo Presidente dela, Alfredo Gonzalezek zuzentzen du

1.832an sortutako Banda. 67 partaidez osatutako taldean 46 gizonetako dira eta beste 21 emakumezkoak. Adina, batzazbeste, 26 urtekoa da eta urtean 18-20 emanaldi inguru eskeintzen ditu.

Bergarako Orfeoia

1.945. urtean sortutako abesbatzako burua Valen Moñux da eta 65 ahotsen zuzendari, berriz, Cristina Larrañaga. 20 gizonetako eta 45 emakumezko osatutako taldearen batzazbesteko adina 35 urtekoa da. Udaberriko eta Gabonetako Kontzertuetan ezezik, Santa Marina eta San Pedroko jaietan ere kantatzen dute.

JUBILATUEN TABERNA

• **Bazkari eta afariak**

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA

REMENTERIA Altzariak

Egongelak / logelak
Aukera guztiak / enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

BERGARA Karrozeria

Txapa - Pintura


Tfnoa: 76 12 31

Zubieta 46
Bergara



Gabonetako Kontzertuko protagonistak mintzo

Beteranoa:



Jesus Berroia

68 urte ditut eta Orfeoian ibili naiz hasiera-hasieratik, 1.945ean Don Roman Oyarzabalekin hasi ginenetik. Hamabi urte egingo ditu aurten Gabonetako Kontzertuak eta guztietan parte hartu dut. Bandan zein Orfeoian, urteak eman ditut musika munduan murgildurik.

Hiru urte dira Orfeoia laga nuela eta Udal Musika Banda, bertan 50 urte eman ondoren, utzi berri dut. Hala ere Gabonetako Kontzertuan, talde guztiekin batera, Morriconeren La Mision interpretatuko dut.

Gabonetako Kontzertuan Bergara guztia biltzen da herriko musika taldeak ikustera. Bergararrontzat oso berezia da.

Debutantea:

Ainhoa Amasorrain

Aurtengo uda ostetik nabil Udal Musika Bandan eta beraz, nire lehen Gabonetako Kontzertua izango da aurtengoa. 13 urte ditut, klarineta jotzen dut eta beste lagun batzuekin batera ekin nintzen bandan. Ilusio haundiz prestatzen ari gara ostiraleko kontzertu haundirako, lehenago Musika Eskolako Bandarekin zuzenean jo dugun arren, hurrengo hau banda nagusiarekin ematen dugun aurrenekoa bait da.

Debutaren eguna heltzeko irrikatzen nago, bestetan entzule izan bainaiz, aurten, herrian antolatzen den kontzertu garrantzitsuenean protagonista izango naiz eta.



Antolatzailea:



Valen Moñux

Gabonetako kontzertuaren helburua, eszenarioan Bergarako musika talde adierazgarriak biltzea izan da. Bakar batzuk dira horrelako espektakulo bat antolatzeko aukera duten herriak.

12. edizio honetan, kontzertuko momenturik hunkigarriena, duda barik, talde guztiak bat eginda Morricone-ren La Mision pieza interpretatzerakoan. Partitura ederra, zuzenean sekula entzun ez den pieza, eskeintzen da Bergaran.

Pena benetan Gabonetako Kontzertuaren helburua Bergarako musika taldeek bat egitea izanik, hau, itxuraz bakarrik izatea. Errealitatea ezberdina bait da.

Maisua:

Miguel Gonzalez Bastida

1.979an ekin genion Gabonetako Kontzertua antolatzeari. Bestetan egiten ez zen zerbait antolatzea bururatu zitzaigun. Frontoian eman genuen lehena, Orfeoia, Aritzeta eta Musika Bandak eta Iralan ere antolatu zen urte baten. Azken urteetan, berriz ere frontoian egin ohi da.

Gabonetako Kontzertua oso berezia da bergarar batentzat, batez ere musikari denarentzat. Nik eszenario gainean kontzertua zuzentzeko aukera izan nuen eta orain dela bost urtetik, Udal Musika Banda utzi nuenetik, afizionatu gisa joaten naiz kontzertura; ez dut sekula hutsik egin eta aurten ere horrela izango da.



OILAGORRA
Taberna

Barrenkale 21, BERGARA

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Tellerian, Tfnoa: 76 27 93
Labegaraita Auzoa

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75



LARUNBATA 21

Txistorrada Plazan goizean.
Saskibaloia: *Bergara-Lasalle* (Gazte mailako mutilak), 16.00etan. *Bergara-Hondartza* (Gazte mailako neskak), 16.30etan. *Bergara-Loiola* (Kadete mailako mutilak), 16.30etan. *Bergara-Mitxelín* (Lehen Mailako kadete neskak), 17.30etan. *Bergara-Eskoriatza* (II. Mailako kadete neskak), 17.30etan. *Bergara-Juven* (Senior gizonak), 19.30etan.

Zinea: *Tacones lejanos*. 17.00, 19.30 eta 22.30etan.

Farmazia: Estella/Ruiz (Arrasaten gauzez).

IGANDEA 22

Ogia: Mizpildi.
Saskibaloia: *Bergara-Euskalduna* (Junior mailako mutilak), 10.00etan. *Bergara-Tabirako* (Senior emakumeak), 12.15etan.

Zinea: *Tacones Lejanos*. 17.00, 19.30 eta 22.15etan.



Farmazia: Estella/Morales (Arrasaten gauzez)

ASTELEHENA 23

Buruhaundiak: Plazan 13.30etan.

Jolasak: Plazan 16.00etan.

Zinea: *Tacones Lejanos*. 19.30etan.

Farmazia: Estella/Irizar (Arrasaten gauzez).

ASTEARTEA 24

Zinea: *Impulso*. 17.00etan.

Farmazia: Mozos/Ruiz (Arrasaten gauzez).

ASTEAZKENA 25



Zinea: *Impulso*. 17.00, 19.30 eta 22.15etan.

Farmazia: Camacho/Morales (Arrasaten gauzez).

OSTEGUNA 26

Kirol iharduerak: 10.00etatik 13.00etara, Igerilekuetan eta 15.30etatik 18.30etara Kiroldegian.

Buruhaundiak: Plazan 15.30etan.

AGIRREBEÑA

**Oinetakoak
 Erropa denda
 Lenzeria**

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

FERNANDEZ



**Oihal puskak
 Oihalak**

San Antonio 3
 Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2
 Tfnoa: 76 53 22

ANDIZU

**ERAIKUNTZA
 MATERIALEN
 BILTEGIA**

Azulejo erakusketa • Onduline
 P.V.C. • Blokeak • Pinturak

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan

C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
 Faxe: 76 00 58 BERGARA

ZUNBELTZ

Kafetegia

S. Arrieta Enparantza
 BERGARA

YAZKI

UME

GAZTE

Neska eta Mutil

Irizar 3
 Tfnoa: 76 16 54

Ibargarai 8
 Tfnoa: 76 54 73




Gastronomia Lehiaketa: Plazan 16.00etan.

Zinea: *Los Supersónicos*. 17.30etan.

Bideo Emanaldia: Kultur Etxean 19.00etan, Pazkuetako bideoa eta 20.00etan San Martzialetakoa.

OSTIRALA 27

Kirol iharduerak: Igerilekuetan 10.00etatik 13.00etara eta Kiroldegian, 15.30etatik 18.30etara.



Buruhaundiak: 15.30etan Plazan.

Jinkana: 16.00etan Seminarioan.

Sorpresa: 18.00etan Plazan.
Zinea: *Rafi, un rey de peso*. 19.00etan.

Bideo emanaldia: Kultur Etxean 19.00etan Pazkuetako bideoa eta 19.30etan Bizi Alternatibokoa.

Gazinema: Antzuolan *Ghost* 22.00etan.

LARUNBATA 28

Kirol iharduerak: Igerilekuan 10.00etatik 13.00etara eta Kiroldegian 13.30 etatik 18.30etara.

Bizarzuri: Herriko kaleetan zehar 19.30etan hasita.



IGANDEA 29

Gimnasia erritmika: Herriko taldearen exhibizioa 17.00etan frontoian.

Haurren Jaialdia: Frontoian 17.00etan.

Kantaldia: Mikel Markez Pol-Polen 20.00etan.

ASTEARTEA 31

Kalejira: *Xamatz, Kobok dultzaineroak, trikitalariak eta hankapaluak*.

OSTIRALA 3

Kafe-tertulia: *Euskal rocka, Pol-Polen* 17.00etan.

Bertso Afaria: Gaztetxean.

IGANDEA 5

Errege Kabalgata: herriko kaleetan zehar 19.00etan hasita.

ITXASMENDI


Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA

LITXAR
Kruasantegia

• Gosariak • Askariak
• Hanburgesak / Sanwichak /
Plater konbinatuak / Pizzak
Fraiskozuri 4 Tfnoa: 76 55 45

A



ARRASATE

ELKORO
ANTENAK

✓ **TB Satellite bidez**


✓ **Telebanaketa**

Tfnoa: 79 18 86



**MINER Ardo onak,
ardak jakina**

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

Erreportaiak, ezkontzak,
kirol grabazioak, bideo
industrialak, zinten kopiak .

Santalaitz 4, Tfnoa: 76 54 35

"Jai pozgarri hauek direla eta,
Bergarako Udaleko
Korporazioak, Victoriano
Gallastegui Alkatearen bidez,
bergarar guztiak zoriondu nahi
ditu, jai zoriontsuak eta 1.992a
urte baketsu eta zoriontsua
izan dadila opatuz".



BERGARAKO UDALA



Gabonak herritik kanpo pasako dute



Jose Luis Loidi Rossli, aurreko Legealdian Bergarako zinegotzia, espetxeratua dago Martxotik. Gabonak Herreran igaroko ditu.

91-12-16
Kaixo lagunok! Hila esker gutas gogoratzen zareteklako.
Gabon zorientsuak oparo dituzet, eta datorren urtea hobea goa izan dadila mundu quitiarentzat.
Jendea ez dadila Langabezira behartuta izan.
Gazteak alaitsuak eta Kementsuak izanda ez daitezela kontsumoz.
No gizarie honek sortutako droga arazoan erori.
Ondasunak hobeto banatuta izan daitezela.
Herri quitiak bere gerra aukeratzeko gai izan daitezela.
Aizkenez...
Gudak sortarazten dituzten arrazoiak desagertu daitezela.
HERRERATIK URTE BERRI ON GUZTIEI!!!

Rossli

Miren Agirreolea, mende hasieran Bergarako Arte eta Lanbide Eskolako Zuzendari eta argazkilarik bikaina izan zen Eustakio Agirreolearen alabak, Burgoseko Trinitarias-etatik Gabonak zoriondu dizkigu.

Zaragozan, 91.12.17.

Berrigarako lagunak, zaragozatik...

ZORIONAK!!

Gabon zorientsuak behar dira oparatu eta maite dituzten jendearekin batera ondo pasa! eta eta urte berririk pakea eta gure inquiruko txikiak eta belartsuengandako sensibilitate landia go bat ekarrien diquin!

GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON!

Bilkohez, lurmenagoraz!

(Nekane)

Nekane Berasategi, monja izateko urratsak betetzen dihardu Zaragozan. 23 urteko bergararrak herritik urrun pasako ditu gabon jaia.

ZCZC RUB099 4061
BURGOS 18 17/12 1801

JAUREGUICA MUTUR ETXEA
BERRIGARA ERROTA SDE
BERGARA

AURTZO JESUS ONETZI ZAZU NERE FAYOT ERRI MAITEA GABON ZORIONTSUAK
AGUIRREOLEA MIREN



Zuhaizti

Espalola 6, Tfnoa: 76 59 22

Oporregatik itxita abenduak 22tik urtarrilak 5era

ayastury

Barrenkale 30
Tfnoa: 76 11 31

Jantzidenda

N
i
n
i
k
a

Loreak mundu osoan



INTERFLORA

L
o
r
a
d
e
n
d
a

Gabo zorientsuak pasa eta urte berri on!!

NEREA

**Gizon-Emakumeen
Ienzeria moda**

Simon Arrieta Enparantza 1



**ETXE-
-AUNDI**

**Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI


FS
oto sistema

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- Diapositiba errebelatzeak
- Karneterako argazkiak momentuan
- Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

Gabon gaba etxean edo kalean?



Jose Maria Diaz
61 urte, jubilatua

Familiarekin pasatzeko gau bat dela uste dut eta ez naiz afalostean kalera irtetzen.




Amparo Lijo
22 urte, ikaslea

Nik uste dut, tradiziñorik egon ez arren, irten egin beharko zela, beste egun baten bezala.



Amparo Larrañaga
40 urte, pelukera

Etxean egotea gustatzen zait, familiarekin ondo pasatzen dut eta.



Gabriel Ortigosa
32 urte, industri-gizona

Ez dut irtetzen familiarekin afaltzen dudalako, bestela irtengo nintzen.

ANTXONI

Jatetxea

Fraiskozuri 7, Tfnoa: 76 20 40 BERGARA


Zorionak eta Gabonak ondo pasatu!!

**Zure
konfidantzako
denda**



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE




**Eros
berri
on**

Badator, iritsi da dagoeneko, urtero antolatu ohi den geldiezin ezko erosketa kanpaina. Maitasun eta elkartsasunaren egunak deritze alde batetik; bestetik gehiengo, abenduko soldata estrarekin kalkulu infinitesimalak ikasten, bai elurrean jolasteko, oparien zerrenda bukaezina osatzeko, bazkari eta afari galantak eskeintzeko, azken finean egunotan etengabe ko erosugarra lasaitzeko txertoaren bila etsian.

Saltzaileen zoramena. Txitxardinak garesti samar daudela herri arruntarentzat? Atera ditzagun orduan artifizialak, 5.000 pezetatan. Eta eginiko produkzioa hamar egunetan akabo. Zer dira mila ogerleko, egi-azkoak bost aldiz gehiago balio badute? Eta denak pozik, surimiaren itxura berriarekin. Berdin zaio, bost axola gustokoak ditugun ala ez. Kontua, erostea da.

Datorren urtean, agian, - zergatik ez? - merkatuak eskeiniko digu beste pentsaezinezko produktu berri bat. Eta fiormal formal erosiko ditugu azken zaborrak, esaterako polimeroz eginiko legatza. Bost inporta zer eta zertarako, arazoa erostea da. Eta hortan bagabiltza, merkatuaren aukerak infinitoak dira.

Iñigo Urrutia



**Gabonetako
Errege
sariak**

Aita, Erregeak nondik etorten dira?, galdegin nion nik bein nere aitari txikia nintzala. Erregeak?, Zerutik. Nere galderaren garrantziari jaramon aundirik egiteke. Eta, zergatik baserrietara ez dira etorten?, guk ez bait genun Errege saririk izaten. Errege zerutarrak urte ta zillarrez beteak etorten dituk eta nola etorriko dituk lokatza besterik ez dagoen baserrietara?, aitak.

Erantzun horrekin kezka gelditu nintzan: zergatik zerutar Erregeak justuak izanik gu baserriar umeok bereizten edo diskriminatzen ote gintuzten...

Gure jaiotzetik kale errepidera ez dira eun metro besterik egongo eta lagunik geienak kaletarrak, eta an ikusten genitun batak baino besteak sari obeak azaltzen zituztela. Gutxienak ere gozoak badere bai, eta guk ezer ere ez, zergatik?... Ori zan nere galdera.

Erruki galderarik ez duan umea. Galderak dituana pentsatzen dualako da eta galdetzen badu argitu ezin-eko kezka ditualako da eta argitu ezin duanean galdera sortzen zaio. Eta, orduan, bidezko ote da gezurra esatea?

Gabonetako Errege sari oiek on ainbat kalte egiten duela uste det, batez ere ezinean dabilzan sendietan. Batzuek millaka duroen sariak eta beste askok iru-lau gozo engainagarri ere ez. Pentsa dezagun orrelako asko dagola gaur ere zenbait lekutan. Ez esan oieri justuen gintza danik bereizkapena edo diskriminazioa agirian dagonean. Esan egia eta kito.

Martin Gallastegi

ZAPATODOS

Gabonak ondo para eta urte berria hobeto hari!!.

San Pedro, BERGARA

ezpeleta etxea

Harizko eta kotoizko
goimalako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

BRUNET MERKATALDENDA



Ozaeta, 11-13 Behea
Tfnoa: 76 31 52
BERGARA

Zeuk galde



46. Zeintzu hilabetetan izaten dira istripu gehien?

Askotan pentsatu izan da negua izango dela, eguraldi txarreatatik eta, istripu gehien izango den garaia. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak emandako datuen arabera, hori ez da hala. Urtarriletik martxora bitarteko epea da istripurik gutxien egoten dena. Hurrengo hilabeteetan gehiago eta uztaila hilabeterik txarrena. Gero, gainontzeko hilabeteetan berriz gutxiago. Istripurik gehieneko eguna, berriz, igandea izaten da % 20,5 eta hurrengo larunbata % 19.

□ BONOFOTO 92ra arte!

Urteko azken **BONOFOTOA** Erkaitz Gabilondo gazteak irabazi du. Berak esan bezala, argazkian agertzen zen konbentukoak Klarisak genituen eta beraz, berarentzat izan da 10.00 pesetako saria. Aurrerapenarekin heldu zaio bai Arkaitzi aurten Olentzero eta ziur gaude Gabonetan izango duela non gastatu. Eta besteak, badakizue, 92an Olinpiadak eta guzti horrez gain, hamabostean behin *Bonofotoa* ere izango duzue *Berrigararekin* batera. Segi jokatzeko eta ea urte berria, loteriarekin ez bada behintzat, *Bonofotoko* sariren batekin hasten duzuen!



□ Eskertza afaria

Gabonen atarian, *Jubilatueta*ko kolaboratzaileek beraien urteroko afaria egin zuten Jubilatuetan. Udala, komunikabideak (*Berrigara* tartean) hainbat instituzio... eta, nola ez, bertako ordezkariak mahai baten inguruan ondo afaltzeko bildu zitzaizkigun. Afalosteko solasaldian urteko balantzea eta datorren urteari begira jubilatuen plangintzari buruz hitzegiteko aukera izango zutela pentsatzen dugu.

ORAZI
Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

LARRAÑAGA
eta **ZUBIA**
Banatzaileak


Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak

Martokua 32, tfnoa: 764594

ETXAGI
Jafetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12



□ **Santa Luzia**

Urtero bezala, joan den ostiralean emakume bergarar de-
xentek *Santa Luzia* jostunen patroia-aren eguna ospatu zuten
gure herrian. Gehienek afaria egin zuten arren, izan ziren
bazkaria egin beharrean izan zirenak ere, afaltzeko lekuri-
k topa ezinik. Jatetxeak toperaino... eta ostiral gauean giro berezia
herriko tabernetan somatzen zena.


*Zertan
dihardute
ba?*

MERCEDES URIEN



Joan den ostiralean
Zumarragan izandako
*Santa Luzia*ko ferian
Uberako Errementeri
baserriko 53 urteko
emakume honek lehen saria
jaso zuen barazkietan,
20.000 pezetako saria
eskuratuz.

DAMASO ETA IÑAXIO



Arjentinara joango
zaizkigu Gabonetan *Damaso
Gallastegi* 33urte eta *Iñaxio
Arregi* 43 urteko Aranzadi
Ikastolako maisuak.
Abenduaren 20an irten eta
Arjentinan Akonkagua
mendiko gailurra lortzen
saiautuko dira.



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

**SURPE
Taberna**

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA


**IRUBIDE
Taberna**

Bazkariak, gosariak,
afariak, etab.

Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67

Izkirimiriak

Donostiatik Zumarragarakoa doan (debalde) egin bear zuela ta trenerako txartelik gabe sartu zan trenera Mundrautar bat orain zenbait urte, bere laguneri ere ezer esan gabe. Interbentorea ikusi zueneko asi zan gaixo-itxurak egiten, ez dakit agiñeko-miña, buruko aldien txarren bat, gibelekkoa ala zer, ta interbentorea errukittu, bai bere lagunak ere, ta paketan utzi zuen. Beste bein edo birritan ere joan zitzaion interbentorea baiño ez zion batere onerakorik arkitu. Txarrena Ormaiztegiko zubia igarotzerakoan interbentorea agertu zanean izan zan. Ainbesterañoko miñak etorri zitzaizkion gaixoari, zer eta bere burua laiotillatik eta zubitik bera bota bearrean "prantau" zan eta kosta zi-



tzaien bai bere laguneri ta bai interbentore gizaioari ari eustea...

Eldu ziran Zumarragara ta gizonori politto... Edan zituzten baxo-erdikon pare bana ta gizonori oi-bezela, sekula ezer euki ez balu letz... Bere lagunek, poztuta, esaten diote...

- Ño!... ik emon doskuzak bialekuak!... Ormaiztegiko zubitik bera eure burua bota ez duanian!...

- Zer? -erantzuten die berak-.

- Ormaiztegiko zubitik bera bota neuk neure burua?... Ezta danok bultzaka asi bazinete be!

Txomin Amasorrain

Antzinako kontuak

Telesforo Aranzadi eta Bergara (III)

Telesforo Aranzadik, bere idazlanetan irakur ahal daitekeenez, euskerarekiko jarrerak maitasuna eta ardura adierazten du zenbaitetan gure hizkuntzaren alde gogorki borrokatuz. Horrela, bere lehengusu M. Unamunok euskaldunak bultzatzen dituen euskara alde batera uztea gogorki agertuko da esandakoaren aurka. Eta gertaera honen ondoren lehengo bien arteko harreman lagunkoiak aipurtuz gain urrundu ere egingo ziren. 1.901 urtera arte euren artean idatzitako gutunetan adiskidantza somatzen da. Baina Bilboko Arenalean, 1.901 urteko lore-jokoak zirela eta, Unamunok emandako hitzaldian botatakoak, esanez euskara hiltzen laga behar zela etabarrek bere onetik atera zuten Aranzadi, erantzunak Euskal Erria

aldizkarian idatziz. A. Goicoetxeak Aranzadiri buruz idatzitako hobeezinezko liburuan horrela dio: "Lo cierto es que estaban destinados a no entenderse. Fueron dos temperamentos distintos surgidos de un mismo tronco. Para Aranzadi la vida fue un poco como su apellido, un espinar; le tocó hacer un duro trabajo, fuera de los ambientes brillantes, en el silencio de los laboratorios con la consideración sola de un restringido grupo de científicos europeas. No sabía vender su mercancía o ésta era tan delicada que sólo podían degustarla unos pocos elegidos. En cambio Unamuno fue un gran maestro de ceremonias y sus golpes de efecto supieron atraer a su obra, a gentes que muchas veces no se hubieran acercado de otra manera."

Xabier Larrañaga

URRATS

Kafetegia
 Ibargarai Tfnoa: 76 52 92
BERGARA

AGOITZ
Tapizdenda
 San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58
BERGARA


IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
 D. IRALA 5
 Tfnoa: 76 24 88 **BERGARA**

Zubiberri
Sagardotegia
 • Eguneko menuak
 • Kazuelitak
 San Anton Tfnoa: 76 41 06

Bidekurutzeta 6, behea
 Tfnoa: 76 57 68
BERGARA

droa
boutique

Udal
Kirol
Zerbitzua



Bergara
**Kirol
sariak**

BERRIGARA

Hona hemen kirol sariketako garaileak

Zuen, irakurleon, botuek erabaki dituzte kirol sariketako irabazleak. Jasotako 246 txartelen artean zozketatutako Madrilera ala Bartzelonarako bi pertsonarentzako bidaia Andoni Rodrigezi tokatu zaio eta Udal Kirol Zerbitzuko karnetak, berriz, Yolanda Juaristi eta Iñigo Martin Idigorasi. Zorionak eta eskerrik asko danol parte hartzea-

gatik.

Sarien banaketa hilaren 28an (ez da inuzentekeria) eguerdiko ordu 1ean, Kultur Etxean izango da eta finalista geratu diren kirolarien artean Parisera bidaia bertan zozketatuko da. Luntxa egongo da eta denok gonbidatuta zaudete.

Kirolaririk onena



1.- Iñigo Gallastegi
(Bergarako Igeri Taldea): 64 boto.

2.- Angel Bideluze
(Zapelaitz Motozale Taldea): 31 boto.


3.- Joseba Arietaleaniz (Lokatza Txirrindulari Elkarte): 25 boto.

Etorkizunik oneneko

1.- Amaia Arantzabal (Pol-Poleko Mendi Saila): 56 boto.

2.- Iker Muruamendaraz (B.K.E.ko Pelota Saila): 34 boto.

3.- Gorka Marzan (Lokatza Txirrindulari Elkarte): 34 boto.



Talderik onena

1.- Lokatza Txirrindulari Taldea: 47 boto.

2.- Bergarako Igeri Elkarte: 43 boto.

3.- Pol-Poleko Mendi Saila: 36 boto.



Komisioaren saria



Kruz Jauregi

Pertsona oso ezaguna Bergarako kirol munduan, 40 urte inguru egin du lan kirolaren alde. Besteak beste, B.K.E. ren eta Gipuzkoako Futbol Federazioaren erreko- nozimendua jaso duela- rik. Iaz 69 urterekin erre- tiratu zen eta orain ondo merezitako sari hau irabazi du.

Zatoia
Boutique

BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

PANADEROKUA

Taberna

Aste osoan
Babarrunak eta
saiheski errea

ELGETA, Tfnoa: 76 82 73



Era guztietako
kristaleria: Ispiluak,
bidierak...

UR Kristaldegia

Urteaga 8, Tfnoa: 76 54 68 BERGARA



1.954.eko Gabonak

Oraingoan Gabon giroko argazki polit hau dakarkizuegu. 1954ekoa da eta Gasparrenetik Santamañara zegoen lehengo paseo zaharrean aterata dago.

Juana Zelaia (Barrenkaleko Juana) zenak, hamaikatxo ume zaindu zituen garai batean eta berak bultzatutako ohitura izan zen honako hau ere. Umeei Gabon kantik erakusten zizkien eta gero, Gabon egunean, etxez etxe ibiltzen ziren kantuan, Juanak berak zeukan jaiotza bikaina hartuta. Atarian jaiotza utzi eta eskaileratan gora etxez etxe ibiltzen ziren umeak eskean. Batzuk intxaurrak, beste batzuk goxokiren batzuk, beste batzuk txanponen bat..., gustora ibiltzen ziren umeak.

Erretratuan agertzen diren hauek ondorengoak dituzue, eskerretik eskumara:

Atzean jaiotzari eusten: Rafaelita Ruiz (Kapaña) eta Mariluz Unzurrunzaga.

Aurrean: Marisol Egibar, Maritxu Okina, Kontxita Askasibar (G.B.), Begoña Garai eta Itziar Garai.

Estepan Plazaola

Argazkia: Marisabel Egibar



jolas



**GABON HAUETAN...
ZURE OPARI DENDA**

BARRENKALE 27

**ETXEBIZITZA**

Pisua salgai: bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. Tfnoa: 764971.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. Tfnoa: 765823.

Garajea alokairuan utziko nuke Burdiñaten. Deitu: 763189.

Pisua salgai, Iraburu kaleko 10.ean. Deitu 763911 telefonora.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 20an. Deitu gaueko 8etatik aurrera: 764252.

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. Deitu 760415 telefonora iluntzeko 8etatik 10etara bitartean.

Pisua errentan hartuko nuke. Deitu: 760357

SALDU-EROSI

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objektibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda eta poltsa ta guzti. **Manuala eta automatikoa.** Berria-berria. Deitu: 765690 edo 801538 telefonoetara.

Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 86207 telefonora.

Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitora, 3 pulgadako disketera, 30 joku. 35.000 pezeta. Tfnoa: 762512.

PCrako joku original eta kopiatuak (100 inguru) salgai. Oso merke!! Deitu: 761785 (Asier).

200 litrotako **Fagor termo elektrikoa** salgai. Deitu: 764988 gauez.

3 pertsonarentzako **Iglu kanping-denda** berria salgai. Deitu: 763495.

Ekonomika eta beheko surako egurra zakuka salduko nuke. Deitu: 763016

9 bandadun **AKAI EA-A1** ekualladorea eta **AKAI AP-X1** tokadisko erdiautomatikoa salgai. Deitu: 765690 edo 801538 telefonoetara.

CX 2.600 A ATARI bideojokuak erdi-prezioan salgai. 10.000 pezeta, ia berria. Tfnoa: 761718

Neskentzako bizikleta salduko nuke. **BH bolearo rosa** modeloa. 7tik 11ra urtekoentzako modukoa. Otarre eta guzti. Tfnoa: 761314

Narruzko kremaileradun txaketa salgai. Berria-berria. Deitu: 763968.

SPECTRUM+2 bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 19.000 pezeta. Deitu: 762512.

Karrerako bizikleta bat mendiko bizikleta batengatik trukatu nuke. Deitu: 763269.

LANA

Produzio saileko **Ingeniero-tekniko** batek lan egingo luke. Tfnoa: 761913

Arratsaldez **lana** egingo nuke **etxeko lanak** egiten edo **umeak zaintzen**. Deitu: 765482.

Furgoneta batekin **errekauak** egiten lan egingo nuke. Deitu: 742063.

Hildakoak

Jose Duran Otero
abenduaren 14an, 81 urte
Domingo Garcia Jimenez
abenduaren 16an, 85 urte
Margarita Landa Malla
abenduaren 17an, 96 urte

Jaiotakoak

Unai Rodriguez Fernandez
abenduaren 11ean
Lander Bretaña Olabarria
abenduaren 13an
Maite Aranzabal Osinalde
abenduaren 14an
Yanire Ramos Monterroso
abenduaren 18an

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara****ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**

Taberna kafetegia

EHIZTARIAK
LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubleta 26, BERGARA

BERGARA PIEL

Kalitatea preziorik onenean

Espaloia 6,

Tfnoa: 76 20 70

BERGARA

Cristina

Ospe handiko markak topatuko dituzu bakero denda berrian:
Levis, Diesel, Carоче,...

Harruriaga z/g,

Tfnoa: 76 03 04

BERGARA

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA


Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



FAGOR 

SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO
GARANTIA